

ESKOLAKO TRIATOLONAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.

- Triatloia: Igeriketa – AT – Txirindularitza – AT – Oinezko lasterketa.
- Duatloia: Oinezko lasterketa – AT – Txirindularitza – AT – Oinezko lasterketa.
- Akuatlona: Oinezko lasterketa – AT – Igeriketa – AT – Oinezko lasterketa.

2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.

Erregelamenduan egokitu beharreko bi puntu daude:

- Trantsizio-eremuan parte-hartzaileen artean egon behar duen distantzia, gutxienez, pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia izango da.
- Kirolen arteko trantsizioan, ofizialek ezin izango diete parte-hartzaileei beren materialarekin lagundu (kaskoa lotu eta askatu, bizikleta jarri).

Ez da gomendatzen joan-etorriko zirkuituen diseinurik.

3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten

4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduera-arauak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten